

# Ereintza eskubaloia taldea mintzagai

Julen Etxeberria



**E**reintzak eskubaloian egindako lana handia da. Elkartea sortu zenetik 50 urte igaro direnean balantzeak egiteko garaia iritsi da, behar bada, baina baita oroimenak libreki azaltzen uzteko garaia ere. Eta bigarren hori da Julen Etxeberria egiten saiatu dena. Eskubaloian goi maila lortu duten eta Ereintzarekin lotura handia izan duten hiru kirolarien oroimenak eta sentipenak ekarri nahi izan ditu orri hauetara: Reyes Carrere, Juantxo Villarreal eta Amaia Ugartemendia-renak, hain zuzen.

**Reyes Carrere:**

**“Abiapuntua izan zen Ereintza, abiapuntu ederra”**

Ereintzako emakumezkoen bigarren taldeko kide izan zen Reyes Carrere (Errenteria-Orereta, 1966). Han ezagutu zuen eskubaloia, eta han geratu zen baloi txikiari kateatuta. Hortik eman zuen ere jauzia, Hernanira lehenbizi eta Cortebianco Bidebietara gero. Jokalari ibilbidea amaituta, entrenatzen hasi zen. Egun Akaba Bera Berako entrenatzailea da. Donostiako taldean egindako lan bikainari esker omenduko dute aurtengo Madalenetan. “Ohore handia da”, aitortu du lotsatuta.

**Nola hasi zinen eskubaloian?**

Kirola egiteko gogo bizia nuen, baina gure garaian emakumeek ezin genuen kirolik egin eskolan. Horregatik, kalean egiten genuen kirola. Saskibaloia gustatzen zitzaidan, baina ahizpak eskubaloian jokatzeko zuten; Ereintzako lehen taldeko kide izan zen. Berak esan zidan Ereintzan jokatzeko hasteko, jendea behar zutelako. Eta horrela hasi nintzen, 15 urterekin.

**Eskubaloia ezagutzen zenuen?**

Batere ez. Hutsetik hasi behar izan nuen, baina ezjakintasun hori ilusioarekin eta gogo biziarekin estali nuen. Zaila izan zen ere, gauza asko ikasi behar izan nituen aldi berean, baina beno, horrek ere erakarri egiten ninduen. Ez genekien ezer, jaso besterik ez genuen egiten. Urte zirrargarriak izan ziren. Oso oroitzapen polita dut.

**Nola gogoratzen dituzu orduko entrenamenduak?**

Orereta Ikastolan entrenatzen genuen gehienetan. Nik Koldo Mitxelena Institutuan ikasten nuen, eta klaseak amaituta, Pontikara jaisten nintzen. Han hartzen nuen autobusa Ikastolara igotzeko. Kalean entrenatzen genuen, ez zegoen besterik. Euria egin arren, lanean jarraitzen genuen. Noizean behin frontoian entrenatzen genuen, eta partida batzuk ere han jokatzeko genituen. Giro ederra izaten zen frontoian! Zaletasun handia zegoen orduan, orain baino askoz gehiago.

**Gustura aritzen zineten, beraz.**

Oso gustura. Niri betidanik gustatu izan zait lehiatzea, eta Ereintzan hori egiteko aukera izan nuen lehenbiziko aldiz. Gozatu egiten nuen entrenatzen, partidak jokatzeko... Gehien gustatzen zitzaidana ari nintzen egiten, ezin nuen gehiago eskatu. Gainera, hasiberriak izan arren, Espainiako txapeldunorde izatera iritsi ginen. Akuilu bikaina izan zen eskubaloian jokatzeko jarraitzeko. Bestela, hor genuen Altube gainean. Altubek eragin handia izan zuen guregan, hari esker hasi ginelako gozatzen eskubaloian jokatzeko. Horregatik ez da kasualitatea egun Akaba Bera Berako entrenatzaile-taldeko hiru kideak bere eskuetatik pasa izana: Ana nire ahizpa, Amaia Ramirez eta ni.

### Ereintzak arrastoa utzi dizu?


Bai, noski. Hasiera izan zen, eta hasierak politak izaten dira, zailak ere, baina politak. Abiapuntua izan zen Ereintza, abiapuntu ederra. Entrenatzen ikasi genuen, lehiatzen. Jokatzeko eta gauzak lortzeko gogor lan egin behar dela ikasi genuen, eta irakaspen hori oso baliagarria izan zaigu gero gure kirol ibilbideetan. Ahaleginean eskuzabalak izaten erakutsi ziguten Ereintzan.

### Entrenatzailea izanik, nola ikusten duzu Ereintzak harrobiarekin egiten duen lana?

Gaur egun oso zaila da harrobitik jokalaririk ateratzea. Gure garaiarekin alderatuta, lehiakortasun handiagoa dago, baita exijentzia maila altuagoa ere. Aspaldi ez dela Ereintzatik atera gero maila nagusian jokatu duen jokalaririk. Emakumezkoetan ez, behintzat. Hala ere, Akaba Bera Beran beti erne gabiltza ea etorkizuneko jokalariren bat ateratzen den.

### Zer moduz landu du emakumezkoen eskubaloia Ereintzak?

Gizonezkoen maila lehenetsi du erabat. Emakumezkoen kirola beti egon da baztertuta, eta Ereintzan zoritxarrez ere horrela izan da. Guk gure garaian zenbait ika-mika izan genituen, bazter batean ginela ikusten guelako. Ordutik urratsak eman dira, baina oraindik...



Reyes Carrere



### Juantxo Villarreal:

### “Ereintzak arrasto sakona utzi du niregan”

Ereintzako lehen taldeetako kide izan zen Juantxo Villarreal (Errenteria, 1947). Laster eman zuen Bidasoara jauzia. Han, ibilbide luze eta oparoa egin zuen Irungo taldea entrenatzen: 22 urte, 1975-1976 denboralditik 1996-1997 denboraldira. Hamaika txapel irabazi zituen bi hamarkada horietan, eta eskubaloian ospea lortu. Bidasoan egindako lanagatik ezaguna izan arren, ez du inoiz Ereintzan bizitakoa ahaztu. “Harro nago Ereintzako kide izanaz”.

### Nola hasi zinen eskubaloian jokatzeko?

Fraideen Ikastetxean hasi nintzen, 8 urte eskasekin. Fraideen Ikastetxean jaio zen eskubaloia herrian. Ondo gogoratzen dut. Ni baino helduagoak ziren ikasleak aritzen ziren jolastokian eskubaloian jokatzeko, gomazko baloi batekin. Gustatu zitzaidan, eta azkar geratu nintzen eskubaloiarik kateatuta. Konturatu

orduko auzoen arteko txapelketan jokatzeko nengo, nire auzo kutunarekin: Santa Klara. Frontoian jokatzeko genuen, estalkirik gabeko frontoian, noski. Hasieran oso jende gutxi joaten zen gu ikustera. Baina guri horrek ez zigun asko axola. Han aritzen ginen jo eta ke. Partidak oso arraroak izaten ziren, ezohiko emaitzak: 5-4, 3-2...

### Azkar geratu zinen, beraz, baloi txikiari kateatuta.

Hala da. Egundak guztia ematen nuen baloiarekin. Jendeak uste zuen baloiarekin lo egiten nuela! Fraideen Ikastetxetik Tellerialdera pasatu nintzen. Horrek, hala ere, ez zuen eraginik izan. Aitzitik, eskubaloian erabat murgildu nintzen. Ordurako entrenatzaile lanak ere egiten nuen. Ikusten nuen guztia imitatzen nuen. Dena nahi nuen jakin eskubaloiaz.

### Horrela iritsi zinen Ereintzara.

Tellerialdetik Mundaizera joan nintzen, eta hortik Ereintzara. Egia esan, orduko Ereintzako jokalarik guztiak Tellerialden ikasitakoak ziren. Jokalarik guztiak elkar ezagutzen genuen, eta asko lagunak ziren. Talde bat baino gehiago, elkarrekin kirola egiten genuen lagun koadrila bat ginen.



Juantxo Villarreal

### **Gogoratzen dituzu Ereintzarekin jokaturako lehen partidak?**

Nola ez ditut gogoratuko! Hori ez da inoiz ahazten! Jende asko joaten zen gu ikustera, eta guk gozatu egiten genuen hainbeste jenderen aurrean jokatzeko genuenean. Beno, euria egiten zuenean ez genuen batere gozatzeko. Orduan bai komeriak... Herriak asko maite zuten Ereintza, berea balitz bezala sentitzen zuten. Lehen ohitura zen igandetan herriko taldea jokatzeko ikustea, erritua kasik. Orain, aldiz, jendeak nahiago du igeri egin, ibili, edo gimnasia joan. Lehen elkarrekin egiten ziren gauza asko. Orain, ordea, bakarrik.

### **Behin Bidasoa entrenatzen, inoiz ez zenuen Ereintza bazter batean utzi ezta?**

Ez, ez. Bidasoaren eta Ereintzaren artean oso harreman ona zegoen orduan, harreman zuzena. Altube, Uria... lagunak nituen. Ondo konpontzen ginen elkarrekin. Gainera, Ereintzak ondo landu du beti harrobia, eta hori oso garrantzitsua zen guretzat. Ereintzako etorkizuneko jokalariek begiz jota genituen.

### **Eragina izan al du zure kirol ibilbidean Ereintzako kide izanak?**

Eragin handia, zalantzarik gabe. Ereintzak arrasto sakona utzi du niregan, nire bizitzako zati oso garrantzitsua da. Eskubaloian jokatzeko gain, dantzatu

ere egin nuen Ereintzan. Ekimen askotan parte hartu nuen. Harro nago Ereintzako kide izanaz.

### **Garrantzitsua izan da Ereintzak harrobian egin duen lana?**

Oso garrantzitsua. Ikusi besterik ez dago. Zaila da talde batek hainbeste urtetan eguneroko lanari eustea. Lan asko egin behar da, sakrifizio ugari, eta hori batzuetan oharkabean pasatzen da. Badago jendea taldeak irabazi edo galdu duen bakarrik axola diona, baina hori ez da garrantzitsua. Garrantzitsua da, noski, baina ez da dena. Gauza askoz gehiago hartu behar dira kontutan: harrobia lantzen duen, talde lana eta kirola egitea sustatzen duen, gizarte zerbitzua egiten duen, herriari zerbitzua eskaintzen dion... Hori guztia ere aintzat hartu beharreko zerbait da. Bidasoak, esaterako, emaitzei begira egin du lan beti, eta beste alor asko alde batean utzi ditu. Ereintza, aldiz, beti saiatu da herriaren mesedetan lan egiten, eta hori eskertzekoa da, zalantzarik gabe.



### **Amaia Ugartemendia:**

### **“Ereintzan hasi zitzaidan eskubaloia gustatzen”**

Ereintzako lehen emakumezkoen taldeko kide izan zen Amaia Ugartemendia (Errenteria-Orereta, 1966). Han hasi zen nabarmentzen, eta handik egin zuen jauzi maila gorenera. Hernanin, Pegason, Cortebianco Bidebietan, Porriñon eta Akaba Bera Beran jokatu zuen gero, orain hiru urte 20 urte baino gehiagoko ibilbidea bazter utzi eta behin betiko erretiroa hartu zuen arte.

### **Nola hasi zinen eskubaloian jokatzeko?**

Altube endredamakila hutsa delako! Eskubaloia partida genuela esanez etorri zitzaidan egun batean, partida bezperan, hori bai. Gu eskubaloian? 14 urte genituen, eta ez genekien nola jokatzeko, baina Altubek berehala konpondu zuen arazoa. Arbela txiki bat atera zigun partida hasi baino minutu batzuk lehenago, eta eskubaloia oinarriko kontuak erakutsi zizkigun. Minutu eskaseko azalpenak entzun, eta segidan jokatzera, hori marka!

### **Ez zen horrenbesterako izan, eskubaloian jokatzeko jarraitu zenutelako Ereintzan.**

Bai, baina zaila izan zen. Eskubaloia kirol zaila delako ikasteko, are gehiago egun batetik bestera jokatzeko hasten zarenean. Horregatik ez zen harriztekoa

izan hasieran partida guztiak galdu izana. Emaitzak, gainera, benetan arraroak ziren: egun batean 4-0 galtzen genuen, beste batean 25-2... Oso txarrak ginen. Askokostatu zitzaigun jokatzeko ikastea. Zorionez, pixkana-pixkana hobetzen joan ginen, eta jubeniletan, 1983-1984 denboraldian, Espainiako txapeldunorde izan ginen. Jauzi handia eman genuen denbora gutxian. Hala ere, lan asko egin genuen. Ez dut ahaztuko zenbat aldiz jarri ninduen Altubek pareta baten kontra pausoak kon-tatzen eta jaurtitzen: bat, bi, hiru eta bota!

#### **Non entrenatzen zenuten?**

Orereta Ikastolan, jokalaria gehienek han ikasten genuelako. Kotxetan egiten genuen bidaia, eta gehienetan Altubek eramaten gintuen. Ikastolan, noski, kalean entrenatzen genuen, orduan ez zegoen estalkirik. Koltxonetak ere ez zeuden, eta manta batzuk erabiltzen genituen, jaurti eta bertan erortzeko. Pentsa nolako muturrekoak hartzen genituen... Frontoian ere entrenatzen genuen, baina oso gutxitan. Eta herri-tik kanpo beste horrenbeste, beti kalean, euria egin edo eguzkia egon: Pasaian, adibidez, herriko plazan jokatzeko genuen, eta pista erdian estolda bat zegoen. Urteak aurrera egin ahala, zorionez, kiroldegietan jokatzeko hasi ginen. Luxu hutsa.

#### **Baldintzak, beraz, barregarriak ziren.**

Bai, baina berdina zitzaigun, ez genuen hori bes-terik ezagutzen. Kalean jokatu behar genuela, bada kalean jokatzeko genuen. Egun batean gogoratzen naiz Oñatin pista ondoan obretan ari zirela, eta gure atezaina baloi bila joan zela. Porlanean sartu zuen hanka guztia, eta gero horrela jokatu behar izan zuen. Pentsa zer-nolako pistetan jokatzeko genuen. Baina beno, zoriontsuak ginen.

#### **Eta hala ere, Espainiako txapeldunordeak izan zineten.**

Bai, talde polita genuen: Reyes Carrere, Lourdes Uranga, Amaia Ramirez, Mirentxu Muñoz, ni... 11 ginen taldean. Ondo gogoratzen dut, argazki bat dugulako denak elkarrekin txapelketa horretan. Argazki historikoa da.

#### **Nolako taldea zenuten?**

Oso ona. Giro bikaina genuen, gainera. Lagun koadrila bat ginen, kalean ere askotan elkarrekin ibiltzen ginen.

#### **Nolako garrantzia izan du Ereintzak zure kirol ibilbidean?**

Ereintzan hasi zitzaidan eskubaloia gustatzen. Ordu arte ia behartuta jokatu nuen, Altubek behartu ninduelako. Ereintzan jokatu izan ez banu, agian ez nuen gero jokatzeko jarraituko.

#### **Zein iritzi duzu Ereintzak harrobiak egin duen lanarekin?**

Horretaz hitz egiteko, Altube aipatu beharra dago. Hari esker jarraitzen da herrian eskubaloian jokatzeko. Beste herri askotan futbolak dena estaltzen du. Hemen, aldiz, eskubaloiak badu indarra, eta bere tokia. Horrek agerian uzten du lan ona egin dela.

#### **Zer moduz landu du emakumezkoen eskubaloia Ereintzak?**

Orain ez dakit, baina gure garaian gizonezkoen taldea zen garrantzitsua. Normala zen, iritsi berriak ginen. Nik ez dut kexarik, ez dakit ondorengoek zein iritzi duten. Gure garaian, gainera, gizonezkoen taldeko jokalaria oso ondo portatzen ziren gurekin. Haien neskatzak ginen. Haien eramaten gintuzten partidetak, haien autoetan. Oroitzapen polita dut. Esaiozu orain lehen taldeko jokalaria bati haur moko batzuk Oñatira edo eraman behar dituela. ■



Amaia Ugartemendia